

Gabriel ARESTI: "HARRI ETA HERRI", 60 URTE
Udako Ikastaroak, Euskal Herriko Unibertsitatea

Karmelo LANDA: "BILBON DABIL GABRIEL ARESTI"

Karmelo LANDA

- Bilbon dabil
- Gabriel ARESTI



1

- EHUko Gabriel Aresti katedrak eta Bea Zabalondo ikastaro honen zuzendariak, EHUko Bizkaia areto honetan, gaur, goiz osokoikastaroa antolatu digute, **Harri eta Herri** poesia liburu bikainaren 60 urteurrenean.
- Esker ona agertu nahi diet bertan komunikazio hau egiteko gonbidapenagatik.

2,3,4,5


KULISKĀ SORTĀ




HARRI eta HERRI

GABRIEL ARESTI

EDITORIAL ITXAROPENA



BILBON DABIL
GABRIEL ARESTI
Karmelo Landa




- **BILBON DABIL GABRIEL ARESTI** izendatu dut nire gaurko komunikazioa. Intentzio osoa duen titulua da, *dabil* hori orainaldian jarrita.
- Izan ere, Bilbon sortu du Gabriel Arestik bere obra, eta Bilbo oinarri hartuta. Zergatik Bilbo? Bertan gurutzatzen zirelako, Aresti beraren mundu-ikuskeran, garaiko gizartearen bi ardatz nagusi: abertzaletasuna eta klase-borroka.

6



****Euskaltzaindiak*** eta Bilbo honetako ***Gabriel Aresti Kultura Elkarateak*** antolatu eta modu publikoan aurkeztu zuten elkarrekin Harri eta Herriren argitalpen berezia 2014. urtean, liburuaren sorreratik 50 urte bete zirenean. **Xabier Kintana** euskaltzain eta orduko Euskal Akademiaren idazkariak zuzendu zuen bi liburuko argitalpen berezi hura, lehen liburuan *Harri eta Herri* bera estreinakoz 1964an argitaratu zen bezalaxe eskainiz, eta bigarren liburu baten adituen iritzi eta ekarpenak bilduz.

7



Bigarren liburu hartan aurkeztu nuen orduko nirea, ***"Bilbon dabil Gabriel Aresti"*** tituluaz, hain zuzen. Orduan azaldu nituenak aurrera begirako lan ildo emankorrak suertatu dira, eta frogatu egin didate orduan hipotesi gisa aurkeztu nuena, ibili dabilela Gabriel Aresti gaur eguneko Bilbo honetan, alegia. Bilbo beraren norabidean eragina izan dezakeela Gabriel Arestiren obrak, gaur egun ere, zentzu sakonean. Eta hau argitzera eta zabaltzera nator gaur.

Kontsidera daiteke, azken hamarkadetan egindako lanaren ondorioz, Gabriel Arestiren ekarpen zabala eta are haren irekitasun existentziala, haren ahalmenagatik eta jarrera aktiboagatik lortutako emaitzak ezagutu, neurtu eta gureganatzeko aukeran garela gaur egun.

Izan ere, Gabriel Arestiren obra dimentsionatu egin behar dugu. Poesia mailu bat da, bai, baina Aresti ez da soilik poeta. Haren ibilbidea, jarrera existentziala, bizitzan bete behar duen mandatua, euskal nortasun debekatuaren bila aritu eta berau biziberritzea da. Eta horretara abiatu zen Gabriel Aresti Bilbon, oso gazte zenetik hasi eta bizitzaren ibilbide osoan, 41 urte zituela, 1975ean Basurtuko ospitalean hil zen arte.

"Gero hil nintzen".

8



Hiru ataletan laburtuko dut Gabriel Arestiren ekarpena, haren bizitza, obra eta eragina analizatuz, hemendik aurrera harengana hurbildu nahi duten ikerlariarentzat, orain arte landutakoaren erreferentziak eskaini eta zabalik aurki daitezkeen ikerketa bideak seinatuz.

1. Gabriel Arestiren biografia
2. Gabriel Arestiren obra
3. Gabriel Arestiren eragina Bilbon eta Euskal Herrian

1.- GABRIEL ARESTI, biografia bilbotarra



Bilbon jaio zen Gabriel Aresti 1933. urtean, Abandon, Barroeta Aldamar kaleko 2an, Ibaizabal ondoan eta portuaren eta aduana zaharraren eremuetan. Handik hiru urtera, estatu-kolpea eta gerra latza gertatu ziren. Urte beteko epe laburrean Bilboraino heldu zen gerra frontea, eta hiria, herritarrak, bilbotarrak bere baitan harrapatu . Arestik berak dioskun moduan:

10

"Nik hiru urte kunplitu nituenean, Espainian gerra zen. Ni orduan erdalduna ninzen. Ez beste arrazoiengatik ezpada nire gurasoek, naiz eta euskal apellidukoak izan, euskeraz ez zekitelako, erdal herri batean jaio nitzelako, Bilbaon, Bizkaiko hiriburu berrian.

Gizonak asko sufricen du. Baina are gehiago sufricen du haurrak... Gerra batean bizi den haurrak. Naikoa alimenturik, naikoa elikaturarik ez duen haurrak... Eta hala genbilzan gu, haur flakoak, lur zihorkatu haretan; ikaca lapurcen genuen; garia eta ogia ohostucen genuen; tabakoa eta ardoa ebaxten genuen... Lortu genuen kultura apurra ere, aginka eta ukabilka hartu genuen liburu debekatuetatik "


1.1: Euskara galduaren bila.- Gabriel Arestik, beste askok legez, gorriak eta beltzak jasan behar izan zituen. Eta frankismoaren gau beltz amaigabea abaildu zen Bilbon eta Hego Euskal Herrian.

Baina hor abiatu zen Gabriel Aresti, hor bere borondatea, bere kemena, ahalmena eta erabakia. Hamabi urte zituela, lehen erabaki finkoa hartu zuen. Aitaren etxe galdua, hizkuntza eragotzia, debekatua eta zigortua, Euskal Herri deserriratu, bere egitea.

“Euskalerrriaren eriotzearen ezagugarri eta señaleargi eta garbi bat nintzan ni nire ume-denporan. Eta egun batean, amabi urte nitularik, nire buruaz lotsatu nintzan, euskaldun motz bat nintzala konturatu nintzan eta nire buruaz egin nintzan lotsatu. Eta andik liburu-denda batera joan nintzan, euskal ikaspide edo gramatika on bat erostera”.

1.2: Iturri zaharretik euskaldun berria, Gabriel Aresti bilbotarra.- Arestik berak aitortzen du ahalegin ikaragarria egin behar izan zuela gazte urte haietan euskara ikasi eta bereganatzeko, liburutegietan nekez lortutako euskal liburuen bitartez, batez ere Euskaltzaindiak garai hartan Bilbon zuen egoitzan, Erribera kaleko 6 zenbakian, Alfontso Irigoien adiskideak lortzen zizkion euskal klasikoak iturri hartuta. Axular beraren Gero oso-osorik eskuz kopiatuz, esate baterako.

11



“Uste dut euskalduna naizela, nahiz-eta oraindik eztudan euskararen jabetza oso bat lortu, nik nahi dudana jabetza, behintzat. Eta nire inguruan begiratzen dut, ikusten dut nolako egoera hertsian, nolako larritasun haundian dagoen gure izaera eta gure hizkuntza. Nire bihotzean ezta euskerarentzako kupidazko sentimendurik kabitzen. Niretzat, euskera premia bat da. Nork esanen du ogia maitatzen duela? Ogia ezta maitatzen, behar izaten da. Hala pasatzen zait niri euskerarekin. Eztut maitatzen, behar izaten dut.

Eta gure izanaren zolarako hain ardurakoa eta premiazkoa den hizkuntza hau, badirudi gal zorian dagoela, eta nire iritzia da denborarekin arrisku handiagoan egonen dela.”

1.3.- Euskara literarioaren ezinbesteko beharra. Euskara batua sortuz.-

Euskara ikasi eta menderatzetik, euskararen aldeko lanari ekin zion. Euskara kalera begira jarri nahi du, jendartera, hirietara, eta konturatzen da horretarako lan mardula egin beharra dagoela.

12



1957. urtean, Gabriel Arestik 23 urte baino ez zituela, **euskaltzain urgazle** izendatu zuten, eta ordutik areagotu egin zuen bere ekina. Bilbon bertan eta inguruan aurkitzen ditu aliatuak, idazle eta irakasle gazteen artean:

Jose Luis Alvarez Enparantza “Txillardegi”, garaian Bilbon ikasle zebilena; **Xabier Kintana, Alfontso Irigoien, Federiko Krutwig, Imanol Berriatua, Koldo Zuazo, Angel Zelaieta, Xabier Gereño...**

Euskal Herri osorako baliagarri izango den hizkuntza literarioaren osatzea hartu zuten taldearen helburu nagusi, alde batetik Euskaltzaindia barrutik horretara bultzatuz, eta bestetik, gizarte sektore desberdinetatik euskara batuaren aldeko presioa azkartuz.

Arestik bere kabuz ere ekin zion euskara batuaren bideari. 1959. urterako mamitu zuen gero euskara batua izango zenaren eredu pertsonal zehatza. Harrigarria ere gertatzen da gaur egunetik aztertzea **Maldan Behera** poema luze sarituan 1959. urtean Arestik darabilen euskara, hain zuzen ere morfologian, lexikoan, ortografian eta, oro har, ezaugarri linguistiko nagusietan Euskaltzaindiak 9 urte geroago Arantzazuko Batzarrean onartuko zuen euskara batuaren aurrerapen bikaina delako.

Gabriel Arestik bere kabuz edo beste idazle eta euskaltzale ugarirekin elkarlanean zabaldu zituen euskara baturako bideak aztergai ditugu oraindik neurri handi batean, izan Xabier Kintana, Txillardegi edota lehen aipatutako kideekin, izan Koldo Mitxelena berarekin, 1963. urtetik garbizaleekiko eztabaida zalapartatsuetan (Arantzazuko Euskaltzaleen Biltzarra), 1968an euskara batuaren oinarriak finkatu zituen Arantzazuko Batzarrera arte, edota bitartean, 1964an Txillardegiren gidaritzapean idazle eta euskaltzale ugari koordinatu zituen Baionako Biltzarrean.

1.4.- Albia, abertzaletasunaren habia.-

Industria garaiko Bilbok zabaldu beharra sentitu zuenean, Abandoko errepublika berenganatu zuen, 1870. urtean. Albia da Abando haren bihotza, Albiako lorategi zabala duena Colon de Larreategi eta Ibañez de Bilbao kaleen artean. Bertan ziren 1957. urtera arte Berastegiko eskola publikoak, frankistek gero “eskola nazionalak” bihurtuak eta gaur egun Justizia jauregia direnak. Albia inguruetan zegoen Aranatarren etxea, Santiago Arana ontzigile ezagunak 1857an eraikia, gero Sabin Etxea bezala ezaguna. Frankismo garaian, Bizkaiko gobernadore zibilak suntsitu zuen etxea, abertzaletasunaren sinboloa desagerrarazi asmoz.

Handik hurbil bizi zen Gabriel Arestik ikusi zuen 1960. urtean Sabin Etxearen suntsiketa.



Sabino Aranaren jaiotzetxea - 1961 ean erantsia



Sabino Arana, 1865-1903

"Ai, Albia, Albia, dohakabe guztion kabia, bertan jaio ginen Sabino eta Txabi, eta ni ere, (gustirik dohakabeena). Orain, Sabino, askok Abandoko arranoa deitzen haute, zuek biok, Sabino eta Txabi, zuek arranoak, ni usakumea, oraino hegazi ikasi ez dudana, zuek haitz artean, ahuntz saltolariak harrapatzen zenituzten, ni berriz, akerrrek bere adar okerren artean hartzen naute."

Sabinoren ondoan haren gaizkia bizi izan da, haren razialismoa, euskararen kontzepzio faltsoa, haren teokratizismoa. Baina haren ongia enterraturik dago. Zeren beste Sabino bat dago, guri, populu xeheari ezkutatu eta ebatsi zaiguna."



Txabi Etxebarrieta, 1944-1998

Sabino Aranaren heriotzatik ehun urte bete zirenean, 2003. urtean, brontzeko eskultura bat jarri zuten Albiako lorategian, Sabin Etxeatik hurbil, "Euzkotarren aberria Euzkadi da" haren esaldi ezaguna nabarmenduz.

Gabriel Aresti bera hil ondoren, argitara eman gabeko idatzien artean, bere etxean, Sabino Arana Goiriari idatzi zion odu luze eta solemne hau agertu zen, ingelesezko aipamen bat hasieran eta gaztelezar idatzia, aipatu ditugun garai bateko bizipenen adierazgarri suertatzen dena:

"Ai, Albia, Albia, dohakabe guztion kabia, bertan jaio ginen Sabino eta Txabi, eta ni ere, (gustirik dohakabeena). Orain, Sabino, askok Abandoko arranoa deitzen haute, zuek biok, Sabino eta Txabi, zuek arranoak, ni usakumea, oraino hegazi ikasi ez dudana, zuek haitz artean, ahuntz saltolariak harrapatzen zenituzten, ni berriz, akerrrek bere adar okerren artean hartzen naute."

Sabinoren ondoan haren gaizkia bizi izan da, haren razialismoa, euskararen kontzepzio faltsoa, haren teokratizismoa. Baina haren ongia enterraturik dago. Zeren beste Sabino bat dago, guri, populu xeheari ezkutatu eta ebatsi zaiguna."


Garai hartakoa da Gabriel Arestik, euskara eta euskal kultura baino haratago, aberriarekin hartu zuen konpromisoa:

"...hau zin egin genuen: Euskal Herri libre bat nahi dugu. Herrien kontzierto internazionalean leku bat, toki prestu eta ohoretsu bat deseio diogu gutzaz erditu zen herriari"

14, 15, 16







1.5.- Herri langilea.-

Hogeita bi urte zituela lortu zuen Gabriel Arestik bere lehen lanpostua, 1956. urtean. Zorrotzako portuan zegoen Compañía Vasco-Africana enpresan kontratatu zuten administrazio-ofizial modura, Afrikatik itsasontziz portura heltzen ziren zuhaitz tropikalen enbor kargamentua kontrolatu eta zur ekoizpena bideratzeko lanetan.

Migrazio urteak ziren haiek, eta Bilbo eta inguruko herrietako populazioa goraka zihoan etengabe. Klase borroka eta asimilazio linguistiko eta kulturala era gordinean agertzen dira frankismoan. Gabriel Arestik herri langilearekin konpromiso estua adierazten du, eta klaserik gabeko gizarte euskalduna da bere aldarria.

17

ZORROTZAKO PORTUAN ALDARRIKA:

Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan.
Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan.

Bien bitartean

Anton eta Gilen zeuden

zerrarekin

tronko hura erdibitzen.

Sokarekin...

Eztago kablerik...

Bestela...

Tira eta tira,

orain Anton,

gero Gilen,

eznaiz hilen,

Gilen.

Hemen euskeraz

ta han erderaz.

Birao egiten zuten.

Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik,

berdin tratatzen baitu

erdalduna

eta

euskalduna.

Arbolaren neurriak hartu nituen.

Antiojuak bustitzen zitzaizkidan,

(Amak gauean pentsatu zuen erre kara

erori nintzela). Eta esan nuen:

Beti paratuko naiz

gizonaren alde.

Gilen.

Anton.

ZORROTZAKO PORTUAN ALDARRIKA

*Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan.
Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan.
Bien bitartean
Anton eta Gilen zeuden
zerrarekin
tronko hura erdibitzen.
Sokarekin...
Eztago kablerik...
Bestela...
Tira eta tira,
orain Anton,
gero Gilen,
eznaiz hilen,
Gilen.
Hemen euskeraz
ta han erderaz.
Birao egiten zuten.
Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik, berdin tratatzen baitu
erdalduna
eta
euskalduna.*

*Arbolaren neurriak hartu nituen.
Antiojuak bustitzen zitzaizkidan.
(Amak gauean pentsatu zuen errekarra
erori nintzela). Eta esan nuen:
Beti paratuko naiz
gizonaren alde.
Gilen.
Anton.*

Benetan esanguratsua Gabriel Arestiren erretratu poetiko hau. Erregimen frankista euskara bortizki ukatu, baztertu, alboratu eta ordezkatzeari bilatzen duen erregimen politikoa da. Ondorioz, Anton eta Gilen, biak ala biak, elkarrekin gaztelera mintzatzen ikusiko ditugu Zorrotzako portuan edo Bilboko kaleetan. Are gehiago, jatorriz euskaldunak ziren familia askotan eta etxe barruan ere, gaztelera bihurtu zen familia hizkuntza, errepresioaren beldur edo garaileen aldeko konplexu induzituaren kausaz.

Integrazio soziala gertatzen da, beraz, herri langilean, baina asimilazio linguistiko eta kultural inposatua ere bai. Azken hau ere bizi izan zuen Gabriel Arestik, eta larritasunez agertu ere bai. Ikus 1967. urtean egiten duen ibilaldi baten narrazio idatzia:

“Barakaldotik Etxebarriko San Antoniora egin dut oster, Lutxana eta Zorrozkako kaietatik jatsi naiz...(bertan beltz-kea, pirita eta axufrea ikusi dut deskargatzen), Kanpo-Bolantinetik egin dut segida...(estudianteak greban zeuden punta batean, eta

bestean argiaren indarrez ospatzen zituen Aiuntamentuak bere poetak), aurrera egin dut Zazpi Kaleetatik zuen konpainian (ardoa, ardoa, ardoa). Ollerietatik egin dut gora, Santutxu, Bolueta eta kaminotik aurrera Etxebarriragino etorri naiz...mundu guztiari galdetzen niola: Nork daki euskeraz? Les grans cimetieses sous la lune” (hilerri zabalak ilargiaren azpian)

Frankismoak burutu zuen genozidioaren salaketa gordina. Asimilazioaren ondorioak argi ikusten ditu Arestik Bilbon eta inguruan, eta disimulurik gabe adierazi zuen orduan:

Hau ez da euskal herria. Hau erdal herria da. Gaur egunean Bilbao, Etxebarri eta Barakaldo erdal herriak dira.

Gabriel Arestik erabaki finkoa hartu du: beti jarriko da herri langilearen alde. Baina herri langile hori ez soilik lantegietan esplotatua, euskal lurraldean erdaldundua eta asimilatua ere badagoela ikusi du.

18



1.6.- Konkordantzia ala diskordantzia.-

Orduan eta orain, euskara eta gaztelera derrigorrez elkartzen dira Bilbon, baina zer gertatzen da elkartze obligatu horretan? Nola antola daiteke bi hizkuntza horien arteko elkarbizitza? Egin daiteke modu orekatuan? Literatura izan daiteke, agian, elkartze horretan elkar ulertzeko bidea? Konkordantzia gerta daiteke elebitasunean? Ala diskordantzia izango da nagusi?

Galdera horiei erantzuna ematen saiatu zen Gabriel Aresti, non eta La Concordia, Bilboko kafetegia tradizionalan antolatu ziren tertulietan.

Saiatu zen Aresti, zinez, La Concordia tertulia hartako partaide erdaldun eta euskaldunen artean konkordantzia sakona sortzen, erdal poeta ezagunen obrak euskarara ekarri eta, era berean, euskararekiko errespetua eta onarpen soziala ziurtatzen erdaldunen aldetik. 1968. urtean bere Harri eta Herri obrak Iparragirre saria irabazi zuenean, Arestik berak irabazi zuen, bai, Bilboko erdal poeten errespetua. Berak bai, baina euskarak?

Hitz hauez laburbildu zuen Gabriel Arestik berak, hitzaldi publikoan, La Concordia hartako esperientzia. Aipatu Iparragirre sariaren ondoren, ezaguna egin zen garaiko gizarte bilbotarrean poeta euskaldunaren izena...

“...harriak ere enteratu ziren Bilbaon poeta ero bat bizi zela. Eta orduan nirekin adiskidetu ziren; Bilbaoko “La Bilbaina” burjes-elkartera ere gomidatu zidaten behin... Zein kariño ederrarekin tratatzen ninduten! Honela esaten zidatela zirudien: “Bueno, mutil, orain nahikoa duk; gizondu haiz, familia dadukak, eta lehengo zoroaldiak alde batera utzi behar dituk... haek gazte-denporako zorakeriak izan dira... Euskararen salbazio hori alferrikako gauza da; hori ongi dago gure negozioak zilegiztatzeko aitzakia bezala, baina egin dezagun dirua, zabal ditzagun fabrikak, zabal ditzagun komertzioak! Asko dibertitu zarete orain artean”.

Esperientzia garrantza, beraz. Gabriel Arestik ez ditu ikusi nahi euskara, euskal kultura eta euskal literatura beste ezeren makulu bezala. Euskara ardatz duen Euskal Herriaren alde agertzen da, eta hor kokatu nahi du Bilbo bera ere, orduan eta orain horren erdaldundua dakusagun Bilbo.

1.7.- Kausaren kausa.-

Deustu lokartua, Neguri aberetua. “Hau ez da Euzkadi, hau Gaztela da”.

Horrela ikusi du Bilbo Gabriel Arestik eta hamaikatxo galdera egiten hasi zaigu: zein izan da Bilboren aldaketa sakon hauen guztien kausa sakona? Zein da kausaren kausa? Kausa batek ez baitu bere arrazoia motibatzen. Zergatik eta nola aldatu da Bilbo?

Bilboren eta Euskal Herriaren historia aztertzerako jo zuen Arestik, herritarren erreboltak eta haien arrazoi sakonak; matxinada horietatik lehena, luzeena eta bortitzena aztertu zuen modu berezian, **Gatzaren matxinada**, 1631 eta 1634 bitartean Bilbon gertatu zena, inguruko herrietara eta Gernikaraino ere hedatu zena.

Aparteko garrantzia eskaini zion Arestik pasarte historiko honi. Alde batetik, Bilbon kokatzen du euskal herritarren matxinada (Aiorabide buru eta eredu) eta ordurako Gaztelako Koroarekin bat egin duen bertoko oligarkiaren arteko borroka (Idiaquez hauen ordezkari) .

“ Azkenean Bilbaoko plazan urkatu zuten Aiorabide; urkatuarazi zionaren izena duque de Ciudad Real da, Ciudad Realeko dukea. Zuen artean, modu zaharreko erromantiko batek pentsatuko du: ´eta nola diren atzerritarrak gurekin aldrebesak eta gorrotagarriak ! Ikusten duzue?, nondik etorri diren gure gaitz guztiak? Ciudad Realetik!´ .

Eta ez. Halakoa ez dadila engaina. Halakoa ez dadila tontoa izan, zeren Ciudad Realekoa ez zen Ciudad Realekoa, dukea baizik. Deitura euskotarra zedukan; jaiotetxea, Bizkaian; hizkuntza naturalzat, gure euskera; eta akats handi bat: dirua. Diruagatik traizionatu zuen herria.

Eta honela hasi zen bipera-kasta hori, suge klase hori, euskaldun burges edo aberatsen kasta higuigarria”

Euskararen galeraren kausa, Bilbon eta Euskal Herri osoan, Gabriel Arestik prozesu historiko zehatz horretan kokatzen du, beraz, eta kausaren kausa bikoitza da: Gaztelako eta gero Espainiako botereen eraso eta kolonizazio bortitza bai, baina horrekin batera etxe barruko oligarkiaren kasta, harria jaten duen itogina:

Euskera harri bat da. Asko maitacen det euskal harria. Baina euskaldun klase hori itoginaren parekoa da, eta urteen buruan, mendeen eta mendeen buruan, ur tantak harria jaten du.



2.- GABRIEL ARESTIren obra:

Gabriel Aresti poeta bilbotar bezala aurkeztu ohi da han-hemenka. Baina sarreran esan dugun moduan, Arestiren obra modu zabalago eta sakonagoan dimentsionatu behar dugu, eta horretarako ezinbestekoa gertatzen da bere obra osotasunean ezagutzea.

Horretarako ezinbesteko erreferentzia dugu, gaur egun ere, Susa argitaletxeak 1986. urtean ezagutzera eman zuen **“Gabriel Arestiren literatur lanak”** bilduma, 10 liburutan honen poesia, narratiba, antzerkia, itzulpenak, artikuluak, hitzaldiak eta gutunak biltzen dituena.

Erreferentzia zehatzetan aipatuta, hauxe da bildumaren edukia:

1.- **Lehen poesia:** Gabriel Arestik **1954. urtean hasita** han-hemenka argitaratu zituen **poema solteak** eta jarraian bilduma moduan eman zuen **Bizkaitarrak saila**, bizkaieraz eta bertsolaritzaren moldean; **Maldan Behera** poema sakon hermetikoa; **200 puntu** tituluko balizko bilduma luzeagoaren fragmentua; **Ezkutu banatan eta Dukat banatan saltzeko bertsoak**, bi bertso bilduma zortziko nagusian eta zortziko txikian emanak; **Zuzenbide Debekatua** poema luzea; **Nire lagun enrdiak**, hogeita sei koplaz osatua; **Zeruetan Jainkoa** konposizio laburra, eta azkenik **Bizi-buruko testamentua (azken bertsoa)** poema labur adierazgarria.

2.- **Harri eta Herri:** poema-bilduma ezagun honek 1963. urtean Orixe saria jaso zuen, eta gaztelaniazko itzulpenak erantsita argitaratu zuen Arestik liburu gisa hurrengo urtean: **Gabriel Aresti: HARRI ETA HERRI (KOPLA, BERTSO, DITXO ETA POEMAK).**

Kuliska-Sorta, Itxaropena, Zarautz, 1964. Hainbat aldiz berrargitaratua izan da ondorengo urteetan.

3.- **Euskal Harria:** Lehen aldiz 1967. urtean argitaratua zuen Gabriel Arestik **Euskal Harria (Kriselu, Bilbao 1967)**, baina edizio hark zentsura espainiar frankistaren sega latza pairatu zuen (ikus **Joan Mari Torrealdaik** Susako edizioan gehitu zuen azalpena, **Gabriel Aresti: Euskal Harria, Susa, 1986**, bilduma honen 3. liburua 232-234 orrialdeak). Beraz, Susaren bilduma honetan 1986. urtean argitara eman zen Euskal Harria honek balio berezia hartu du, zentsura espainiarraren artxiboetatik berreskuratu baitziren jatorrizko testu guztiak eta Agustin Ibarrolaren eskuetatik jatorrizko grabatuak eta Arestik eta Ibarrolak osatu bezala argitaratu zuen Susak, zentsura modu horretan gainditu eta jatorrizko egile bien bertsio librean.

4.- **Harrizko Herri Hau:** lehen argitaraldia Arestik prestatu zuen: **Gabriel Aresti-Harrizko Herri Hau, Kriselu-Lur, 1970-abendua, Donostia.** Ez arazorik gabe, ordea. Susaren bildumako liburuki honetan argitu ziren arazok, liburua zentsurak sekuestratu-zorian aurkitu zen, eta autorea, Gabriel Aresti bera, salatua eta Madrileko T.O.P edo Ordena Publikoko Epailearen aurrera eramana, Mariscal de Gante epailearen erabakiak “behin-behineko askatasuna” eta bere burua aldizka polizia komisaldegian aurkeztera behartu zuelarik. Ikus hau guztia Susako edizioaren 4. Liburuan, 172-173 orrialdeak, Joan Mari Torrealdairen azterketa testuan.

5.- **Poesia argitaragabea eta azken poesia:** Susako edizioa paratu zuen lan-taldeak (Josu Landa, Gorka Arrese, Leo Bilbao, Joxerra Bilbao eta Karmelo Landa) Gabriel Aresti hil ondoren argitara gabe gelditu ziren poemak zabal bildu zituen eta liburu honetan eman, lau ataletan bereiztuak: poema datatuak, data gabeak, gaztelaniaz idatziak eta kantatzeko moldatuak.

6.- **Narratiba:** Gabriel Arestiren narrazioak biltzen dira seigarren liburuan, 3 ataletan: 1) 6 ipuin: **Umezurtz aberatsak Gabonetan jokatu nahi; Olerkaria; Abertzalea; Andre Madalen enamoratua; Gure eguneroko beharra; Jainkoa jaio da Otxarkoagan.** 2) 3 narrazio labur: **Prélude a la musique de dance; Haserre-dantza; Urkatuaren oinetara,** eta 3) Nobela bakarra: **Mundu-Munduan.**

7.- **Antzerkia:** Susaren bildumako zazpigarren liburuak Arestik idatzi zituen sei antzezlanak dakartza eta Ramon Saizarbitoriaren hitzaurre interesgarria. Antzerki lanak: **Mugaldeko herrian eginikako tobera; Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua; ...eta gure heriotzeko orduan; Oilarganeko etxola batean; Beste mundukoak eta zoro bat; Justizia Txistulari.**

8.- **Itzulpenak-1: Poesia itzulia:** Gabriel Arestik egindako poesia itzulpen ugariak euskarara, 3 multzotan bereiztuak: 1.- Poesia solteak (**Shakespeare, Baudelaire, Verlaine, Goethe, Blas de Otero, Brecht...** 2.- Galegotik itzuliak: **Curros Enriquez, Paz-Andrade, Marcos da Portela, Garcia Lorca, Castelao.** 3.- Poesia liburuak: **Dante, Eliot, Hikmet, Neruda.**

9.- Itzulpenak-2: narratiba eta dramatika itzulia: Don Kixote Mantxakoa; Boccaccioren Dekamerone Tipi Bat; Tomas Meaberen 14 Alegia; Valle-Inclanen Jainkoaren Hitzak; Ugo Bettiren Ahuntz-Herriko Bidegabea.

10.- Artikuluak. Hitzaldiak. Gutunak: Hamalau hitzaldi, 1959. urtetik 1975. urtera bitartean Gabriel Arestik emandakoak Donostian, Ondarroan, Tolosan, Bartzelonan, Hernanin, Bilbon, Baionan, Gernikan... biltzen dira bildumaren 10garren eta azken liburu honetan, gehi Gabriel Arestik hainbat aditu, adiskide eta ezagunekin izandako korrespondentzia, eta aldizkarietan emandako artikulu edota elkarrizketak, guztiak ere biziki interesgarriak.

3.- GABRIEL ARESTIREN eragina:

Zein izan da, zein da gaur egun Gabriel Arestiren eragina Bilbon eta, oro har, Euskal Herrian?


Sarreran esan dugun moduan, haren ibilbidea, jarrera existentziala, bizitzan bete nahi duen mandatua, euskal nortasun debekatuaren bila aritu eta berau biziberritzea da. Horretan saiatu zen zinez Gabriel Aresti, eta horrela uler daiteke bere ekinbidean horrenbeste arlotara zabaltzea. Gaurko hitzetan esanda, osatu gabe edota desagertze trantzean zegoen euskal kulturaren polisistema osatzen saiatu zen, horretarako bereziki zaila gertatzen zen garai eta testuinguruan, Bilbon.

Edozein kultura sistemaren ohiko eskema kontuan hartzen badugu, era honetakoa dela ikus daiteke:

KULTURA SISTEMAREN ESKEMA:



1.- EUSKAL KULTURA SISTEMA OSATU NAHIAN: Bada, Gabriel Arestik, euskal kultura sistema osatzeko eta etorkizunera begira finkatzeko ahaleaginean, sistemaren osagarri guzti-guztietan eragin zuen, goian ikusi ahal izan dugunez. Sortzaileen atalean, berak sortu zuena benetan oparoa izan zen, baina horrez gain badakigu jakin euskal sortzaile berrien bai eta eta klasikoen laguntzan egin zuen lan eskerga. Instituzioen atalean, bai Euskaltzaindian, edo Euskal Idazleen Elkartearen sortzeko lanean sendo saiatu zen. Errepertorioari dagokionez, ez alferrik aritu zen poeta, narratzaile, antzerkigile, itzultzaile, kazetari eta hizlari lanetan. Produktuen atalean, poema liburuak, narrazio laburrak, nobela, antzezlanak, saiakerak eta kantuek behintzat ugari ekoitzi zituen. Euskal merkatua bera ahulezia egoera larritik atera nahian, bere kabuz argialetxe bat sortu zuen, Kriselu, eta Durangoko Liburu Azokaren alde ere aritu zen hasieratik. Eta hartzaileekiko harreman zuzena bilatu zuen, batez ere hitzaldiak eskainiz, Bilbotik Baionara Euskal Herrian zehar eta Bartzelonaraino ere helduz.



Horrexegatik, hain zuzen ere, genioen sarreran Gabriel Arestik Bilbo honetatik eta Euskal Herrira begira egin duen lana dimentsionatu egin behar dugula. Ezin dugu, besterik gabe, poeta dela esan. Askoz gehiago da Gabriel Aresti, bere lanetan eta bizitzan. Baina heldu da haren eragina gaur arte, gure ingurura? Hauxe da ikertzeko moduan dugun beste arlo garrantzitsua.

Bide honetan urrats batzuk emateko aukera izan nuen EHUK antolaturiko Kongresu batean : NAZIONALISMOA IKERTUZ I. KONGRESUA BILBON, 2012ko irailaren 14an.

KOMUNIKAZIOA: Karmelo Landa: GABRIEL ARESTI: NAZIONALISMOA ETA SOZIALISMOA BILBON ETA EUSKAL HERRIAN

Gabriel Arestiren biografia bilbotarra aztertu dugunean eta ondoren haren obra zabala, bietan nabarmendu zaizkigu bere ibilbide osoa ardazten duten printzipio ideologiko, estetiko eta pragmatiko argiak, nortasunaren eta justizia sozialaren eremuetan koka daitezkeenak, edo zehatzago esanda, abertzaletasunean eta sozialismoaren definizio sakon batean, biak ala biak alderdien definizio zehatzetatik apartekoak.

Euskal nazionalismoak eta sozialismoak garai haietan erreferente politiko berriak bilatzen zituzten moduan, frankismopean, erreferente sinboliko berriak ere behar dira, modu sakonagoan. Aurreko garaiko **kapital sinbolikoa** agortuta zegoen. Aurreko sinboloen berrikuspenean eta sinbologia berria plazaratzea ezinbestekoak ziren, euskal abertzaletasunak eta sozialismoaren aldeko borroka aurrera egin nahi bazuen Euskal Herrian. Lan horretan murgildu zen Gabriel Aresti aipatu ditugun arlo espezifikotan, modu sistematikoan 1960.-1975. urteen bitartean.

Kapital sinboliko berria sortzeari ekin zion Gabriel Arestik, horretarako idazle, hizlari, euskaltzain, editore eta polemista rolak bereganatuz.

Lan ildo espezifikoa batean, Euskal Herriaren intrahistoria aztertzeari ekin zion Arestik. Nazionalismo aranistak egiten zuen fuerismoaren eta euskal gizarte primitiboaren irakurketa idilikoaren ordez, Arestik klase borrokarekin uztartu zuen nazio-zapalkuntza, horretarako euskal oligarkiaren sorrera eta klase dominatzailearekiko bategite edo fusio prozesua ilustratuz. Hiru erreferentzia historiko eskaini zituen horretarako:

1.- **Bizkaiko Foru Berriaren erredakzioa, 1526. urtean:** une horretan ematen da, Arestiren ustez, euskal oligarkiaren osaketa politikoa eta Gaztelako Erresumarekiko bategitea.

“Orduan kendu zizkiguten harmak. Orduan eman zizkiguten Fueroak. Orduan hasi zen gure malda-behera, egoera triste eta larri honetara heldu arte, non ez dakigun euskaldunaren izenak zer esan nahi duen ere”
(Ikus honetaz, Hernanin emandako hitzaldia 1967. urtean, in: Susa, 1986, X, 90 Orr).



2.- **Gatzaren matxinada Bilbon eta Gernikan, 1631-1634:** aparteko garrantzia eskaini zion Arestik pasarte historiko honi.


- Alde batetik, Bilbon kokatzen du euskal herritarren matxinada (Aiorabide buru eta eredu)
- Matxinatuen aurkariak, ordurako Gaztelako Koroarekin bat egin duen bertoko oligarkia (Idiaquez haien ordezkari) .
- Bi pertsonaia horien bitartez osatuko du Arestik sinbolizazio prozesu osoa, lehenago historikoa eta gero literarioa, *habitus* berri baterako patrioiak finkatuz.
- Bi erreferente historiko hauek sinbolo bihurtuko ditu Arestik poetizazio prozesuaren bidez. **“Euskal Harria”** poema ezagunaren interpretazio-klabeak eskaintzen dizkigu, Harria (Aiorabide) eta Itogina (Idiaquez) identifikatuz:

“...euskaldun klase hori itoginaren parekoa da, eta urteen buruan, mendeen eta mendeen buruan, ur tantak harria jaten du”
(Hernani, 1966, X, 91)

3.- **Gerra karlisten motibazioa:**

Arestiren ustez, XIX. mendeko gerra karlisten arrazoi sakona kapitalismoaren garapenak eskatzen zuen lurraren jabetza pribatua ezartzean dago, Bizkaiko lurra eta lur azpia bizkaitar guztiena baitzen ordura arte. Meatzteen esplotazio kapitalista garatu ahal izateko, ezinbestekoa zen, beraz, Bizkaiko Foruak bazterteza:

“La razón intrahistórica de la eclosión de las guerras carlistas ha sido ampliamente debatida. La tierra de Vizcaya era de los vizcainos y también el subsuelo. Se estaban creando las bases del capitalismo, y este no podía medrar en un país en que para la explotación del subsuelo no era reconocida la propiedad privada. Había pues que acabar con el Fuero de Gernika, y para ello montó la aristocracia oligárquica de nuestro País aquel guñolesco y valleinclanesco tinglado patriotero y cristero que se llamó cuestión dinástica”



2.- EUSKAL GIZARTE BERRIRAKO KAPITAL SINBOLIKO BERRITUA.-

Une horretatik aurrera osatzen den euskal gizartea bi kontradikzioz josia ikusten du Arestik: batetik, bertoko burgesia aberastua, desnazionalizatua eta Espainiaren

batasunaren aldeko amorratua, eta bestetik langile klase esplotatua, zeinean gehiengo zabal bat erabat deseuskaldundurik dagoen.

Hortik aurrera, Arestik subjektu indibidual eta kolektiboa birdefinitu beharra aldarrikatzen digu. Nor da euskalduna? Zeren arabera? Horretan ere urruntzen da aranismoetik, zeinen iritziz, etorkinen etorrera masiboak arrisku bizian jarri zuen euskal etniaren biziraupena.

Etniaren definizio modernoek “kultura konpartitzen duen komunitatea” proposatzen dute. Definizio hau bat etor daiteke Arestiren pentsamenduarekin. Berak euskal nortasun berritua bi elementu nagusietatik finkatzen du: klasea eta hizkuntza, edo bere hitzetan esanda, “ogia eta euskara”.

Kultura konpartitzen duen komunitatea, beraz. Baina Gabriel Arestik euskarari berari ematen dio garrantzi nagusia: **“Gure etnia definitzen duen elementua da euskara, gure nazionalitatearen determinantea”**

Gabriel Arestik bi nazionalismo mota definitu zituen: popularra eta burgesa: **“Nazionalismoa burgesentzat bere pribilegio ekonomikoak defendatzeko arma besterik ez da. Burgesiak asko maite omen ditu kultura nazionalaren baloreak, baina beti, beti, beti onartuko ditu atzerritarren modak eta moduak” (Ikus Baionako hitzaldia, in Susa, X.liburukia)**

- **nazionalismoaren kapital sinboliko berriaren errepresentazio literarioa:**

Goian aipatu diren guztiak eremu literariora aldatu zituen Gabriel Arestik eta sinbolizazio prozesua burutu, sinboloen interpretazio egokirako klabeak ere eskainiz:

1.- **Harria eta itogina:** Harria-herria eta itogina: oligarkia euskalduna, in Hernani 1966, X, 91

24

Nire aitaren etxea

*defendituko dut.
Otsoen kontra,
sikatearen kontra,
lukurreriaren kontra
justiziaren kontra,
defenditu
eginen dut
nire aitaren etxea.*

*Galduko ditut
aziendak,
soloak,
pinudiak;
galduko ditut
korrituak,
errentak
interesak,
baina nire aitaren etxea defendituko dut*

*Armak kenduko dizkidate,
eta eskuarekin defendituko dut
nire aitaren etxea;
eskuak ebakiko dizkidate,
eta besoarekin defendituko dut
nire aitaren etxea*

*besorik gabe,
sorbaldarik gabe,
bularrik gabe
utziko naute,
eta arimarekin defendituko dut
nire aitaren etxea.*

*Ni hilen naiz,
nire arima galduko da,
nire askazia galduko da,
baina nire aitaren etxeak
iraunen du
zutik.*

2.- **Nire aitaren etxea:** euskara, Euskal Herria, in Tolosa 1966, X, 69: “**Batez ere abertzale diruzaleengandik ,aberats jainkorik gabekoengandik eta elizgizon Kristoren etsaiengandik defendituko dut nire aitaren etxea, horiek eman baitigute aberri ilun eta triste bat**” in Tolosa 1966, X, 69.

3.- **Mailua.** In “Harri eta Herri”, 1964, 63. orria. Poesia mailu bat da, herri lokartuaren kontzientzian kolpatu eta iratzarri nahi duena.

4.- **Sua eta ura.** Klase antagonikoak Euskal Herriaren Historian, Oinaz eta Ganboa, Oinatiko aberatsak eta Eibarko forjariak. In Baiona 1972, X, 119.

5.- **Bilbaoko kaleak.** Geografia sozialaren agerpena hiriaren konfigurazioan, in “Euskal Harria”, 1967, 59. Ikus honetaz: **“Horregatik gustatzen zait Bilbao, gauzak argi eta garbi ikusten dira, ezer disimulatu gabe, bai, pobretasuna ezkerretara eta aberastasuna eskubitara”**, in Tolosa 1966, X, 67

6.- **Gilen, Anton eta poetaren nia Bilbaoko portuan.** Jatorri euskalduneko langilea eta etorkina, esplotazio berak berdindurik portuko lanetan, eta Gabriel Aresti poetaren kontzientzia soziala piztuz, in “Zorrotzako portuan aldarrika”, **“Harri eta Herri”**, 1964, 15.

Elementu hauek osatzen duten kapital sinboliko berria euskal gizartean modu zabalean hedatzen saiatu zen Gabriel Aresti, lirikaren edota kantuen bidez, nazionalismo berriaren **habitus** bihurtuz kulturaren arloan. Lortu du bere helburua? Honi erantzutea gure, zuen esku dagoela iruditzen zait.

Eskerrik asko.

Karmelo LANDA MENDIBE.

Bilbon, 2024ko uztailaren 9a



